

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako hiru titulu berriren curriculumak onartu du

Energia berriztagarriekin, nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioarekin eta sukaldaritzarekin lotuta daude.

Miércoles, 05 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak Lanbide Heziketako hiru titulu berriren egitura eta curriculumak onartu du gaur; bi goi-mailakoak dira eta beste erdi-mailakoa, eta energia berriztagarriekin, nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioarekin eta sukaldaritzarekin lotuta daude. Tituluetako bi, [Energia Berriztagarrien Goi-mailako Teknikaria](#) eta [Nekazaritza eta Abeltzaintzako Produkzioko Teknikaria](#), sortu berriak dira, eta aldiz [Sukalde Zuzendaritzako Goi-mailako Teknikariarenak](#), aurreko bat ordeztu du.

Titulu berriek Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazional berrian ezarritako irizpideak betetzen dituzte. Izan ere, sistema berri horrek barnean hartzen ditu indartzen ari diren ekonomia-sektoreekin lotutako titulu berriak eta LOGSEtik (1990) datozen beste batzuk lan-merkatuaren beharretara egokitzen ditu.

Titulu hauek onartzean, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazional berriak gaur egun eskaintzen dituen [79 tituluetatik jada 33 egokitu ditu Nafarroako Gobernuak.. horietako 14 ikasturte honetan](#). Beraz, 2008. urtetik, 250 lanbide-modulu –ikasgaien baliokideak- baino gehiagoren curriculumak diseinatu dira, eta horiek 1.000 prestakuntza-unitate baino gehiagok osatzen dituzte.

Azpiraratzekoa da, prozesu honetan, Foru Gobernuak energiaren sektoreko kualifikazioak lantzen parte-hartze aktiboa izan duela, lan hori garatzen duten estatuko [aditu-taldearen](#) zuzendaritzapean.. Lan horren ondorioz, [orain arte Lanbide Heziketako 16 kualifikazio eta 3 titulu diseinatu dira](#), horietako bat –Energia Berriztagarrien Goi-mailako Teknikariarena- Nafarroan eskaintzen da.

Era berean, Gobernuak Nafarroako produkzio-inguruneari buruzko lurralde-azterketak egin ditu, estatuan ezarritako oinarritzko curriculumak Foru Erkidegoko enpresen sareari egokitzeko xedez.

Curriculum berriek ekarri dituzten berrikuntzen artean, nabarmenak dira irakaskuntzak nazioarteko bihurtzeko goi-mailako ziklo guztietan ingelesa sartzea, eta lanbide-moduluak prestakuntza-unitateetan

antolatzea; hala, ikastetxeek etengabeko prestakuntza eskaini dezakete eta ikasleek moduluak prestakuntza-unitate desberdinak gaindituz egiaztatzeko aukera dute.

2011-2012 ikasturte honetan Nafarroan Lanbide Heziketako 79 titulu irakasten dira, horietatik 47 goi-mailakok eta 32 erdi-mailakoak. Guztira 6.619 ikasle dituzte.